

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Ordenantzari behin betiko onarpena ematea, zeinak Aiarako administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea arautzen baitu, obren eta haien ordainsari teknikoek gastuetarako

Aiarako Udaleko osoko bilkurak, 2017ko urriaren 19an egindako bileran, hasierako onarpena eman zion Aiarako administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzari, obren eta haien ordainsari teknikoek gastuetarako. Ordenantza hori jendaurrean jarri zen, 2017ko azaroaren 8ko ALHAOn (128. zk.), eta udaletxeko iragarki-taulan. Hala, hogeita hamar egun balioduneko epea ireki zen, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Jendaurreko informazioaren epe hori igaro eta erreklamazio eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat jo da ordenantza, eta, beraz, honela geratuko da:

Ordenantza, Aiarako administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea arautzen duena, obren eta haien ordainsari teknikoek gastuetarako

Arrazoiaren azalpena

Aiarako udalerrriak hogeita hiru administrazio batzar biltzen ditu, hogeita lau herrigune kudeatzen dituztenak, udalerrriaren lurraldea hala baitago banatuta.

Udalak administrazio batzarrak finantzatzeko sistema berri bat onartu du oraintsu. Horren arabera, udalaren aurrekontuan parte hartu ahalko dute batzarrek, eta, hala, aurrekontua beren ogasunen urteko finantza baliabide bihurtuko da, beren ohiko gastuetarako.

Halaber, obren eta horien ondoriozko ordainsari teknikoek gastuetan administrazio batzarrei laguntza ekonomikoa nola eman jorratu behar da.

Horrenbestez, beharrezkoa da araudi bat ezartzea, udal honek administrazio batzarrei aipatu gastuetarako emango dizkien dirulaguntzak arautuko dituena. Araudi horretan dirulaguntza finalistak emateko modua ezarri beharko da, eta laguntza horiek alde aurretik deitu beharko dira, onuradunak izan daitezzen deialdi bakoitzaren arabera haren denboraldian zehar gauzatuko dituzten proiektuak eskatuko dituztenak.

Orokorrean, dirulaguntza hauek kudeatzean bete egingo dira publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza bezalako printzipioak. Halaber, eraginkortasunez beteko dira ezarritako helburuak eta efizientziaz esleituko dira dirulaguntzak eta erabiliko baliabide publikoak.

Beraz, ordenantza honen xedea da administrazio batzarrei obrak eta haien ordainsari teknikoak ordaintzeko emango zaizkien dirulaguntza finalistak arautuko dituzten oinarriak ezartzea, honako artikulua hauetan jasotakoaren arabera:

1. artikulua. Helburua

Obrak egiteko eta ordainsari teknikoak ordaintzeko Aiara udalerriko administrazio batzarrei izaera finalistaz esleituko zaizkien dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzea da ordenantza honen helburua. Dirulaguntzak emateko prozedurari jarraikiz, eta dirulaguntzaren beraren izaera kontuan hartuta, dirulaguntza honetara bideratutako gehieneko zenbateko orokorra proportzionalki banatuko da onuradunen artean, oinarri hauetan ezarritako mugekin.

2. artikulua. Printzipio informatzaileak

1. Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da ebazpena ematen den unean aurrekontuan dirua baliagarri egotea, bai eta kreditu egokia eta nahikoa egotea ere.

2. Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.

3. Aiarako Udalak lehendik dirulaguntza eman izanak ez die inolako eskubiderik ematen eskatzaileei, eta ez da irizpide erabakigarria izango dirulaguntza berriro emateko orduan.

4. Dirulaguntza hauek emateak ez dakar berekin inolako kontratu harremanik, ez zibilik, ez lanekorik, ez administrazio korik, Aiarako Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duen erakundearen artean.

5. Udal araudi honen aplikazio eremutik kanpo egongo dira beren izaeragatik ordenantza honen xedearekin zerikusi zuzena ez duten laguntzak, bai eta indarreko araudia betez Aiarako Udalak ematen dituen prestazioak ere.

6. Oinarri hauen arabera emandako laguntzak dirulaguntza finalistatzat joko dira, eta, beraz, bete egin beharko dituzte otsailaren 7ko 3/1977 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei buruzkoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta dagokion legedi osagarria.

3. artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira udalerriko administrazio batzar guztiak; hau da, honako hauek:

- Agiñagako Administrazio Batzarra.
- Añesko Administrazio Batzarra.
- Opellorako Administrazio Batzarra.
- Etxegoieneko Administrazio Batzarra.
- Erbiko Administrazio Batzarra.
- Izoriako Administrazio Batzarra.
- Lexartzuko Administrazio Batzarra.
- Lantenoko Administrazio Batzarra.
- Luiaondoko Administrazio Batzarra.
- Luxoko Administrazio Batzarra.
- Madariako Administrazio Batzarra.
- Maroñoko Administrazio Batzarra.
- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.
- Menoioko Administrazio Batzarra.
- Murgako Administrazio Batzarra.
- Olabezarko Administrazio Batzarra.
- Ozekako Administrazio Batzarra.
- Kexaako Administrazio Batzarra.
- Arespalditzako Administrazio Batzarra.
- Erretesko Administrazio Batzarra.

- Salmantongo Administrazio Batzarra.
- Soxoko Administrazio Batzarra.
- Zuhatzako Administrazio Batzarra.

Nolanahi ere, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia-
rekikoak egunean izatea.
- b) Aiarako Udaleko diru kutxetako ordainketak egunean izatea.
- c) Beste dirulaguntza batzuk itzultzeko betebeharren ordainketak egunean izatea.
- d) Ez edukitzea dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duen kausarik, azaroaren 17ko
38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Diruz lagun daitekeen xedea. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta mugak

Ordenantza honen arabera, diruz lagun daitezke obren eta haien ordainsari teknikoek gas-
tuak, baldin eta jarraian azalduko diren baldintzak eta mugak betetzen badituzte:

4.1. Obrak egiteko gastuetarako dirulaguntza:

4.1.1. Administrazio batzar bakoitzak obra bakarrerako eskatu ahalko du dirulaguntza.

4.1.2. Hona hemen eskatu ahalko diren obra motak:

a) Oinarrizko azpiegitura obrak:

1. Argiteria publikoaren sare orokorra eta energia elektrikoko sareak instalatu, berritu edo
handitzea eta konpontzea.

2. Edateko ura etxeetara banatzeko sareak instalatu, berritu edo handitzea eta konpontzea
(lehen mailako sarea eta bigarren mailako sarea); halako sareak guztiz berritu behar direnean,
20 urteko antzinasuna edo altuagoa eduki beharko dute.

3. Hondakin urak saneatu eta arazteko sistema edo/eta sare orokorrak nahiz euri urak
banatzeko sareak instalatu, berritu edo handitzea eta konpontzea; halako sareak guztiz berritu
behar direnean, 20 urteko antzinasuna edo altuagoa eduki beharko dute.

4. Une oro habitatuta dauden tokietarako sarbide komuna duten eta eraikuntzaz finkatuta
dauden hiriguneetan edo herritarren interes komuneko zerbitzuak betetzen dituzten instala-
zioetarako sarbidea ematen duten tokietan bide publikoak zolatzea; edo landa izaera eduki
arren interes komuneko zerbitzuak ematen dituzten instalazioetara sartzeko baldintzak betetzen
dituzten auzo bideak konpondu eta zolatzea.

5. Sute ahoak instalatzea edo berritzea, sareak berritzeko edo urbanizatzeko jarduera baten
barrian badaude.

6. Energia berriztagarria ekoizten duten instalazioak egitea, titulartasun publikokoak badira.

7. Herriguneko bide edo kaleetan oinezkoak babesteko sistemak instalatzea.

8. Obra zibila:

8.1. Telekomunikazioa, gasa edo biomasaren bidez sortutako produktuak etxeetara erama-
teko eta argi publikorako lurpeko kanalizazio lanen obra zibila.

8.2. Elektrizitatea hornitzeko lurpeko kanalizazio lanen obra zibila.

9. Lursail publikoak eusteko hormak.

10. Aparkalekuetako obrak.

b) Ekipamendu eta zerbitzuen obrak:

1. Honako hauek eraikitzea, handitzea, zaharberritzea, konpontzea edo aldatzea: kontzeju aretoak, erabilera publikoko biltokiak, gizarte etxeak (erabilera anitzeko aretoak), bolatokiak eta pilotaleku irekiak.

2. Parkeak eta lorategiak eta kanpoko kirol pistak eraikitzea, handitzea, konpontzea edo aldatzea.

3. Titulartasun publikoko kultu lekuak birgaitu edo konpontzea eta herrietako hilerri publikoak handitu edo konpontzea (ondasunen erregistroan edo inbentarioan higiezinaren jabari osoa edukitzeari deituko zaio titulartasun publiko).

4. Hiri altzariak, autobusen markesinak eta hiriko hondakin solidoak batzeko lurpeko edukiontzi sistemak erosi edo/eta instalatzea.

5. Kontzeju aretoak edo erabilera anitzeko gizarte etxeak eraiki edo egokitzea.

6. Pilotaleku irekiak estaltzea, udalerrian pilotaleku estalirik ez badago.

7. Arkitekturako eta hirigintzako oztopoak ezabatzeko jarduerak, kontzejuan ematen diren zerbitzuak eskuragarri egon daitezten.

c) Landa eta abeltzaintza bideetako obrak (basogintzakoak kanpo, eta oinarrizko azpiegitura obren laugarren puntuan jasotakoa salbuespena izanik).

Titulartasun publikokoak izan behar dira.

d) Biztanle iraunkorrik ez dagoen herriguneetan egin nahi diren obrak.

4.1.3. Udalak ez ditu diruz lagunduko honako obra eta zerbitzu hauek:

a) Indarreko hirigintza plangintza betetzen ez duten obrak.

b) Urbanizazio gastuei buruzko obrak, baldin eta indarreko legeriaren edo udalerriko hirigintza plangintzaren arabera, sustatzaileek edo eragindako jabeek finantzatu edo ordaindu behar badituzte.

c) Hamabost urtetik beherako antzinatasuna duten azpiegiturak edo ekipamenduak partzialki konpondu eta berritzeko obrak. Salbuespena izango dira kontzejuaren ohiko gastuan nabarmen aurrezteko sistemak sartzeko xede bakartzat dutenak eta inbertsio kostu garrantzitsuak eragiten dituztenak, irizpide teknikoaren arabera.

d) Guztiz edo partzialki laga diren edo partikularrei erabilera pribaturako lagako zaizkien ondasun publikoetan (higiezinetan edo espazioetan) egin beharreko obrak.

e) Eskaria egin duten toki erakundeek burutuko dituzten obrak, haiek ez badira jarduera burutuko duten lursailen, eremuen, instalazioen edo eraikinen jabeak deialdiaren babespean eskariak aurkezteko epea amaitzen denean.

4.1.4. Diruz lagundu nahi den obra amaituta egon beharko da dirulaguntza ematen den urtean, eta azken faktura urte horretako abenduaren 31 baino lehenagokoa izan beharko da, nahiz eta ordainketa hurrengo urteko urtarrilaren 30a baino lehen egin ahalko den.

4.1.5. Dagokion dirulaguntza kalkulatzeko, lehentasuna izango dute oinarrizko azpiegitura obrek (4.1.2.a oinarrian ezarritakoaren arabera), eta, beraz, deialdi bakoitzean eskuragarri dagoen aplikazioaren zenbatekoaren ehuneko ehuna banatuko da oinarrizko azpiegitura obrak egiteko eskaria egin dutenen artean. Edonola ere, diruz lagunduko den obran gehiegizko finantziatorik ez dagoela bermatuko da, eta administrazio batzar bakoitzeko 3.000,00 euroko gehieneko muga beteko da.

Aplikazioaren gehieneko zenbateko horrekin ezin badira aurkeztutako eskari guztiak erantzun, aurreko paragrafoaren arabera, administrazio batzar bakoitzari dagokion zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, guztiek eskuragarri dagoen zenbatekoaren arabera gehieneko muga izan arte.

Baldin eta, oinarrizko azpiegitura eskari guztiak erantzun ondoren oraindik banatu daitekeen zenbatekorik badago, ekipamendu eta zerbitzu obrak diruz laguntzeko erabiliko da (4.1.2.b oinarrian ezarritakoaren arabera). Soberan dagoen zenbatekoa eskari guztien artean berdin banatuko da, eta gehiegizko finantziatorik ez dagoela eta administrazio batzar bakoitzeko 3.000,00 euroko gehieneko muga gainditzen ez dela bermatuko da.

Baldin eta, oinarrizko azpiegituren eta ekipamendu eta zerbitzuen eskari guztiak erantzun ondoren oraindik banatu daitekeen zenbatekorik badago, landa eta abeltzaintzako bideetako obrak diruz laguntzeko erabiliko da (4.1.2.c oinarrian ezarritakoaren arabera). Soberan dagoen zenbatekoa halako eskari guztien artean berdin banatuko da, eta gehiegizko finantziatorik ez dagoela eta administrazio batzar bakoitzeko 3.000,00 euroko gehieneko muga gainditzen ez dela bermatuko da.

Baldin eta, aurreko paragrafoetan deskribatutako eragiketak egin ondoren, oraindik ere zenbatekorik geratzen bada banatu gabe, soberan dagoena berdin banatuko da obra osorako dirulaguntza jaso ez duten oinarrizko azpiegitura eskarien artean, eta, edonola ere, gehiegizko finantziatorik ematen ez dela bermatuko da. Eskariren batean gehiegizko finantziatorik balego, obraren kostuaren ehuneko ehuna estaltzeko beharrezko zenbatekoa emango litzaioke soilik, eta gainerakoa gehiegizko finantziatorik eduki ez duten gainerako eskarien artean banatuko litzateke.

Aurreko ataletan egindako eragiketa guztiak gauzatu direnean, krediturik geratzen bada banatu gabe, oinarrizko azpiegituren eta ekipamendu eta zerbitzuen eskariak finantzatu dira, zati berdinetan, gehiegizko finantziatorik ez dutenen artean; ondoren, krediturik geratzen bada, landa eta abeltzaintzako bideetan egiten diren obraren eskarien artean banatuko da, zati berdinetan, gehiegizko finantziatorik ez dutenen artean; eta, azkenik, oraindik ere krediturik baldin badago banatzeke, diruz lagunduko dira biztanle iraunkorrik ez dagoen herriguneetan egin nahi diren obra eskariak (4.1.2.d oinarrian ezarritakoaren arabera), soberan dagoen zenbateko hori banatuta halako eskari guztien artean, zati berdinetan, gehiegizko finantziazioa saihestuta.

4.2. Ordainsari teknikoaren gastuetarako dirulaguntza:

4.2.1. Honako ordainsari tekniko hauen ehuneko berrogeita hamar lagunduko da diruz:

- Proiektuak idatzi, obrak zuzendu eta obraren egikaritzea zuzentzeko ordainsariak.
- Segurtasun eta osasuneko azterketak idazteko eta obretan segurtasuna eta osasuna koordinatzeko ordainsariak.
- Baloratutako memoriak idazteko ordainsariak.
- Obrak egiteko beharrezko txosten teknikoak igortzeko ordainsariak, besteak beste txosten geoteknikoak, hondakinen kudeaketari buruzkoak, lan topografikoak, edo proiektu bat idatzi edo obra bat egiteko beharrezkoak diren bestelakoak.

4.2.2. Administrazio batzar bakoitzak dirulaguntza eskatu ahalko du nahi adina ordainsari estaltzeko. Hala ere, dirulaguntzaren urteko muga 6.000,00 eurokoa izango da, administrazio batzar bakoitzeko, aurkeztutako eskari guztietarako.

4.2.3. Halako laguntzetara esleitutako aurrekontu aplikazioaren gehieneko zenbatekoarekin ezin badira erantzun aurkeztutako eskari guztiak, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, partidaren zenbateko osoa banatuko da administrazio batzar eskatzaileen artean, horietako bakoitzari dagokion gehieneko beste muga bat ezartzeko. Eragiketa hori egindakoan, bakoitzari eskatutakoaren ehuneko berrogeita hamar emango zaio, berriz kalkulaturako gehieneko muga betez eta gehiegizko finantziatorik ez dagoela zainduz.

Eskariren baten gehiegizko finantziazioaren zioz zenbatekorik sobratzen bada, zati berdinetan banatuko da gainerako administrazio batzar eskatzaileen artean, are berriz kalkulaturako gehieneko muga gainditzen denean, partidaren zenbatekoa agortu arte, betiere gehiegizko finantziatorik ez dagoela zainduz.

5. artikulua. Gehieneko aurrekontu zuzkidura

Obrak egiteko gastuetarako emango diren dirulaguntzen zenbaketak, guztira, ezingo du gainditu udal aurrekontuan "obren ziozko dirulaguntzak administrazio batzarrentzat" izeneko 943.734.000 aurrekontu aplikazioan esleitutako zenbatekoa, dirulaguntza deitzen den unean.

Ordainsari teknikoek gastuetarako emango diren dirulaguntzen zenbaketak, guztira, ezingo du gainditu udal aurrekontuan "ordainsari teknikoek ziozko dirulaguntzak administrazio batzarrentzat" izeneko 943.734.001 aurrekontu aplikazioan esleitutako zenbatekoa, dirulaguntza deitzen den unean.

Aurkeztutako eskari guztiak kontuan hartuta, eta obren edo haien ordainsari teknikoek gastuetan gehiegizko finantziarioa saihesteko betebeharrak betetz, ez bada aipatutako aplikazioen baten zenbateko osoa banatzen, sobratzen den zenbatekoa beste dirulaguntza lerro bati dagozkion eskariak diruz laguntzeko erabili ahalko da, laugarren artikuluan azaldu den bezala.

6. artikulua. Onuradunen betebeharrak

6.1. Dirulaguntza hau jasotzen duten administrazio batzarren betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Aiarako Udalean justifikatu beharko dute baldintza eta betekizunak betetzen dituztela, eta laguntza jaso duten obrak edo gastuak egin direla.

b) Dirulaguntza honen esparruan egin daitezkeen egiaztapen jarduerak onartu, eta eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.

c) Aiarako Udalarari ahalik eta azkarren jakinarazi beharko diote beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarrera batzuk lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

d) Jasotako funtsak erabili direla frogatzen duten agiriak eduki behar dituzte, egiaztatutako eta kontrolatutako izan baitaitezke.

e) Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzuli beharko dute.

Eskarian ezarri beharreko datuen edo agiriren bat ematen ez bada edo datu faltsua ematen bada, eskaria baliogabetuko da, eta horrez gainera, eskatzaileari erantzukizuna eskatu ahal izango zaio.

6.2. Administrazio batzar onuradunak guztiz edo partzialki azpikontratatu ahalko du dirulaguntza hau jasoko duen obra edo jarduera teknikoa.

Onuradunak administrazio publikoak direnez, administrazio publikoek kontratuei buruz unean-unean indarrean den legediak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

Hori dela eta, diruz lagundu beharreko jarduerak kontratu txikiaren mugak gainditzen baditu (gaur egun 50.000,00 euro, BEZ kanpo, obretarako, eta 18.000,00 euro, BEZ kanpo, zerbitzu teknikoetarako, edo administrazio kontratazioa arautuko duten etorkizuneko legeetan ezartzen dena), justifikazioarekin batera, fede emailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, administrazio batzar onuraduneko erregidore-lehendakariaren oniritzi eta guzti. Halaber, berariaz adieraziko dira kontrataziorako jarraitutako prozedura, jasotako eskaintza kopurua eta eskaintzen zenbatekoak, eta esleipendunak lortutako puntuazioa, kontratua esleitzea justifikatzen duena.

7. artikulua. Bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek ematea bateragarria izango da beste edozein administrazio publikok xede bererako ematen dituen beste dirulaguntza batzuk eskuratzearekin. Xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza eskaera batzuk badaude, eskariarekin batera aurkeztu beharko da horien gaineko aitortpena, edo, bestela, horien jakitun izan bezain pronto. Kasu horretan, egingandako eskarien fotokopia konpultsatutako (oraindik ebazpenik ez badago) eta dagozkien ebazpenak

(emandako laguntzena, zenbatekoa adierazita, edo ukatutako laguntzena), edo ebazpenaren zain dagoela dioen aitorpena aurkeztu beharko dira.

Edonola ere, onuradunak ezingo du jardueran gehiegizko finantzaziorik jaso, hots, xede bererako jasotzen dituen dirulaguntzek edo/eta laguntzek ezin dute izan jardueraren gastua baino gehiago.

8. artikulua. Deialdia. Eskariak. Dokumentazioa eta epea

Udalak, urtero, deialdi bat argitaratuko du, organo eskudunak onartua. Bertan, dirulaguntzak emateko prozedura garatuko da, eta deialdia azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarri bezala argitaratuko da. Deialdi horretan, dirulaguntza mota bakoitzari erantzuteko onartutako gehieneko aurrekontu partidak adieraziko dira.

Halaber, eskariak eta dirulaguntzen izapidean beharrezkoak diren gainerako zehaztasun guztiak aurkezteko epea adieraziko da.

Eskariak, eta zehazten diren gainerako agiriak, udaletxean bertan aurkeztu beharko dira, instantzia normalizatuan, deialdian ezartzen den epean.

Administrazio batzarrek dirulaguntza eskatu ahalko dute, soilik deialdiaren urtean amaituko diren obretarako, nahiz eta obra horiek aurreko urtean esleituak edo hasiak izan.

Ordainsari teknikoen ziozko dirulaguntzen kasuan, deialdiaren urtean amaituta eta fakturatuta egongo diren lanen zioz soilik eskatu ahalko dira laguntzak, aurreko urtean esleitu badira ere. Denboran zehar jarraituak diren zerbitzu teknikoen kasuan (obren zuzendaritzan eta antzekoetan), deialdiaren aurreko urtean hasita egon ahal izango dira.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasun edo gabeziaren bat sumatuko balitz, hamar eguneko epea emango da, deia egiten den egunetik aurrera, eskaria zuzentzeko.

Epea igaro ondoren eskaria zuzendu ez bada, artxibatu eta administrazio baliorik gabe geratuko da.

Eskariarekin batera (I. eranskina) honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Xede bererako beste dirulaguntza eskaririk dagoen ala ez adierazten duen zinpeko aitorpena, eta, hala badagokio, eskariaren fotokopia konpultsatua. Eskariari erantzun badiote, dirulaguntza onartzen (emandako zenbatekoa adierazi behar da) edo ukatzen duen ebazpenaren fotokopia konpultsatua. Ebazpena emateko zain egonez gero, horren berri eman behar da (II. eranskina).

b) Administrazio eskudunak igorritako ziurtagiria, foru ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusian zergak ordainduta eta egunean dituela egiaztatzen duena, edo, hala badagokio, administrazio batzar eskatzaileko ordezkariak sinatutako baimena, Aiarako Udalak ziurtagiri horiek eska diezazkion administrazio eskudunari (III. eranskina).

c) Onuradun izateko debekuetan ez dagoela adierazten duen aitorpena (IV. eranskina). Debeku horiek, zehazki, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezartzen ditu 13. artikuluan.

9. artikulua. Eskariak aztertzea eta ebaztea

Dagokion informazio batzordeak aztertu eta baloratuko ditu eskariak, txosten egokiak jaso ondoren.

Egokitzaitez gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eskatu ahal izango ditu udalak, eskariak hobeto aztertzeko edo baloratzeko.

Udalbatzako alkate-lehendakaria da laguntzak ebazteko eskumena duen organoa.

Ebazpenaren bidez, laguntza onartu edo ukatu egingo da. Azken kasu horretan, arrazoiak ere azalduko dira. Ebazpenean eskatzailearen datuak, laguntzen zenbatekoa eta, hala badagokio, aurkaratu diren baldintzak adierazi behar dira.

Ebazpena eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Ebazpena udalean eskariak aurkezteko epealdia amaitzen denetik bi hilabete pasatu baino lehen eman eta jakinarazi behar da.

Ebazpena emateko epea amaitzen bada jakinarazpena egin gabe, eskaria administrazio isiltasunaren bidez ukatu dela ulertzeko legitimatuta egongo dira interesdunak, zertarako-eta egokitzat jotzen dituzten errekurso administratiboak edo judizialak jartzeko.

10. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa

10.1. Justifikazio epea.

Onuradun guztiek aurkeztu beharko dute dirulaguntzen justifikazioa, laguntza eman ondorengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

Hala ere, justifikazio fakturen epemuga dirulaguntza eman den urteko abenduaren 31 izango da. Izan ere, obra edo zerbitzua dirulaguntza eman den urtea amaitu baino lehen burutu behar da, eta, beraz, dirulaguntza eman ondorengo urtarrilean soilik ordaindu ahalko da faktura.

10.2. Dirulaguntzen justifikazioa.

Obren edo haien ordainsari teknikoen gastuen aurrekontuaren ehuneko ehuna justifikatu beharko da, eta ez soilik udalak emandako zenbatekoa.

10.3. Justifikazioan aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Obren edo ordainsari teknikoen gastuetan, onartu den eskari bakoitzeko honako hauek aurkeztu beharko dira:

– Fede emailearen ziurtagiria, administrazio batzarreko errejidorearen oniritzi eta guzti (V. eranskina), obra gauzatu edo/eta zerbitzu teknikoa eman dela aitortzen duena. Bertan adierazi beharko dira, halaber, kostuaren zenbateko osoa, eta, hala badagokio, emandako beste laguntza edo dirulaguntza batzuen zenbateko osoa edo erabilitako funts propioen zenbatekoa.

– Beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jaso badira, horiek ematen dituzten ebazpenen kopia konpultsatua, aurretik aurkeztu ez bada.

– Egindako obrak edo ordainsari teknikoaren gastuak kontratu txikien muga baino zenbateko altuagoa badu, administrazio publikoen kontratuei buruz unean-unean indarrean den araudiaren arabera, fede emailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, ordenantza honen 6.2 artikuluan aipatzen den bezala.

– Diruz lagundu diren gastuen faktura orijinalak edo kopia konpultsatuak.

– Aurkeztutako fakturak ordaindu direlako frogagiriak. Dirutan ordaindutakoa justifikatzeko, ordainagiria igorri zuen merkataritza establezimendu, enpresa edo profesionalaren sinadura edo zigilua aurkeztu ahalko da, baita enpresa erakundearen kutxako tiketa edo enpresariak sinatutako idazkia ere, ordainagiriaren zenbatekoa dirutan jaso duela adierazten duena, hura identifikatuta.

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egiten bada (derrigorrezkoa da 2.500,00 eurotik gorako ordainketa guztietan, edo etorkizunean indarrean egon daitekeen araudiak ezartzen duen kasuetan), transferentziaren banku egiaztagiria edo aipatu ordainketa jasotzen duen libretaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

— Ordainagiria igorri duen profesionalak PFEZa atxikitzeke betebeharra badu, administrazio batzarrak atxikipen hori ordaindu beharko dio foru ogasunari, eta ordainketa egin duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu.

10.4. Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ez ematea.

Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada, ordenantza honetan edo dirulaguntzei buruzko araudian ezarritako baldintzetan, edo hura nahikoa justifikatzen ez bada, aurretik eman diren zenbatekoak (halakorik egin bada) itzuli beharko dira, ordenantza honetan eta dirulaguntzen lege orokorrean (lege horren 37. artikuluan) ezarritako baldintzetan.

10.5. Kontuhartzaitetza Sailak aztertuko ditu aurkeztutako egiaztagiria, eta dagokion proposamena egingo du. Hau da, aurkeztutako egiaztagiria ontzat emango ditu, edo, hala badagokio, onuradunak jasotako dirulaguntza osorik edo partzialki itzultzeko proposatuko du.

Alkatetzak Kontuhartzaitetzaren proposamenarekin bat etorri emango du ebazpena, salbu eta zioak emanda dituen ebazpenaren bidez irizpide hori ez jarraitzea erabakitzen bada.

10.6. Onuradunari ez zaio beste dirulaguntzarik emango aurretik emandako dirulaguntzen frogagiriak aurkeztu ez baditu.

11. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntzaren zenbateko osoaren ehuneko ehuna ordainduko da aurkezten diren egiaztagiria berrikusten direnean. Hala ere, onuradunek eskariaren inprimakian berariaz adierazi badute ematen zaien laguntzaren ehuneko berrogeita hamarra aurretik jaso nahi dutela, halaxe jokatu da; hau da, aipatu kopuru hori ordainduko da laguntza ematen duen ebazpena onartzen den unean.

Hala bada, aurretiako zenbateko horren ordainketa kontura ordaindutako zenbatekotzat joko da, aurkezten diren egiaztagiria ikusi eta aztertuta dagokiona kontuan hartuta.

Konturako ordainketa jaso arren azkenean obra egiten ez bada edo diruz lagundutako zerbitzu tekniko ematen ez bada, udalak itzulketa prozedura hasiko du, ordenantza honetan eta dirulaguntzen lege orokorrean jasotakoaren arabera, onuradunak jaso dituen zenbatekoak eta lege dagokion atzerapen interesak itzul ditzan.

12. artikulua. Dirulaguntzak galtzea eta jasotako zenbatekoak itzultzea

12.1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 47. eta 48. artikuluetan jasotako deuseztasun edo deuseztagarritasun kausarik badago, edo dirulaguntzen araudian edo ordenantza honetan ezarritako baldintzak edo betebeharrak urratzen badira, jasotako zenbatekoak itzultzeko espediente hasiko da, eta dirulaguntza ordaindu zen unetik itzulketa adosten den datara arte edo zordunak zenbatekoa itzultzen duen datara arte (arinago bada) sortutako atzerapen interesak eskatuko dira. Horrez gain, emandako dirulaguntza galdu dela ebatziko da.

Era berean, dirulaguntza galdu izana ebazteko, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzultzeko espediente irekiko da, honako kasu hauetan:

a) Dirulaguntza lortzeko eskatzen diren inguruabarrak faltsutu dira, edo hura ematea eragotziko zuen zerbait ezkutatu da.

b) Diruz lagundutako proiektua, obra edo gastua osorik edo partzialki urratu da.

c) Justifikazio betebeharra urratu da edo ez da nahikoa justifikatu, ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera.

d) Laguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, diruz lagundutako obraren edo zerbitzu teknikoaren kostu osoa gairatzen du.

e) Aiarako Udalarari ez zaio jakinarazi beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso direla, nahiz eta ordurako Aiarako Udalak likidazioa onartuta izan.

f) Diruz lagundutako obra edo zerbitzua egiaztatzeko eta horren gaineko finantza kontrolatzeko jardueretan, aitzakiak, oztopoak edo trabak jarri dira edo jarduera horiei uko egin zaie.

g) Eta, oro har, ordenantza honetan ezarritako betebeharren bat ez da bete.

12.2. Dirulaguntza galdu dela zehazteko eta jasotako zenbatekoa itzultzeko prozedura, hala badagokio, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen duen bezala izapidetuko da eta, edonola ere, interesdunei entzunaldia bermatuko zaie.

Prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea gehienez ere hamabi hilabetekoa izango da, hasiera adosten den datatik aurrera. Epea igarota, prozedura iraungi egingo da, baina preskribatzeko epealdiaren barruan beste prozedura bat hasteko eskatu ahalko da.

13. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Oinarri hauetan ezarritako betekizunetatik edozein urratzeak, dirulaguntza eman duen organoak hala baderitzo, azaroaren 17ko 35/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, V. tituluan adierazitako arau hausteen erregimenean eta haren administrazio zehapenean sartzea ekarriko du, emandako laguntza galtzearekin batera.

Azken xedapena

Udal ordenantza orokor hau behin betiko onartu du Udalbatzaren osoko bilkurak. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubideko oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ordenantza hau oso-osorik argitaratuko da ALHAOn, eta han argitaratzen den egunaren biharamunetik hamabost (15) egun baliadun pasatutakoan indarrean jarriko da, aurreko lege bereko 65.2 artikuluan ezarri den bezala.

Arespalditza, 2018ko otsailaren 12a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Bº La Iglesia, nº 3 - 01476 ARESPALDITZA (AIARA-ÁLAVA)
Teléfono. 945 39 90 13
Fax. 945 39 93 31
www.aiarakoudala.eus

I. ERANSKINA / ANEXO I

ADMINISTRAZIO BATZARRAK / JUNTAS ADMINISTRATIVAS OBRAK EGITEKO GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKARIA SOLICITUD DE SUBVENCION PARA GASTOS DE EJECUCIÓN DE OBRAS

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA

IKZ / NIF

ERREGIDORE - PRESIDENTEA / REGIDOR/A - PRESIDENTE/A

NAN / DNI

Posta helbidea / Dirección postal

Telefona / Teléfono

Mugikorra / Móvil

Posta elektronikoa / Correo electrónico

ZEIN OBRATARAKO ESKATZEN DEN DIRU-LAGUNTZA / OBRA PARA LA QUE SE SOLICITA SUBVENCIÓN

Obraren izena / Denominación de la obra:

Aurrekontua (Guztira BEZa barne):

Presupuesto (Coste total IVA incluido):

OBRA MOTA (seinalatu X batekin dagokiona) / TIPO OBRA (señalar con una X la que proceda):

- Oinarrizko azpiegitura / Infraestructura básica.
- Ekipamendu- eta zerbitzu-obrak / Obras de equipamiento y servicios.
- Landa- eta abeltzaintza-bideetako obrak (honako hauek salbu: baso-bideak eta ordenantza arautzailean laugarren puntuan, oinarrizko azpiegituren obrei dagokien puntuan, jasotakoa) / Obras en caminos rurales y ganaderos (excluidos forestales y excepto lo recogido en el punto cuarto de las obras de infraestructura básica de la ordenanza reguladora).
- Biztanle iraunkorrik ez dagoen herriguneetan egin nahi diren obrak / Obras que se proyecten realizar en núcleos de población que carezcan de habitantes con residencia permanente.

OBRA-LIZENTZIA / LICENCIA DE OBRA:

- Obra-lizentzia eskatu da / Se ha solicitado.
- Ez da obra-lizentziarik behar / No se requiere licencia de obra.
- Obra-lizentzia eskuratu da / Se ha obtenido.
- Oraindik ez da obra-lizentzia eskatu / Aún no se ha solicitado.

HAU ESKATZEN DUT:

Diru-laguntza obrak egiteko gastuetarako, bat etorri Aiarako Udalak administrazio batzarrei diru-laguntzak emateari buruzko ordenantzarekin.

SOLICITO :

Subvención para gastos de ejecución de obras conforme a la ordenanza de concesión de ayudas del Ayuntamiento de Ayala a las juntas administrativas.

Lekua eta eguna: / Lugar y Fecha: Aiara/Ayala,
Ordezkararen sinadura, / Firma del Representante,

(Erakundearen zigilua / Sello de la Entidad)
AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 - 01476 ARESPALDITZA (AIARA-ÁLAVA)

Teléfono 945 39 90 13

Fax 945 39 93 31

www.aiarakoudala.eus

I. ERANSKINA / ANEXO I

ADMINISTRAZIO BATZARRAK / JUNTAS ADMINISTRATIVAS

ZERBITZU-SARI TEKNIKOEN GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKARIA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA GASTOS DE HONORARIOS TÉCNICOS

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA

IKZ / NIF

ERREGIDORE - PRESIDENTEA / REGIDOR/A - PRESIDENTE/A

NAN / DNI

Posta helbidea / Dirección postal

Telefonoa / Teléfono

Mugikorra / Móvil

Posta elektronikoa / Correo electrónico

ZEIN ZERBITZU-SARI TEKNIKOTARAKO ESKATZEN DEN DIRU-LAGUNTZA / HONORARIOS TÉCNICOS PARA LOS QUE SE SOLICITA SUBVENCIÓN:

Izena: / Denominación:	Aurrekontua (BEZa barne): Presupuesto (IVA incluido):

HAU ESKATZEN DUT:

Diru-laguntza zerbitzu-sari teknikoetarako, bat etorri Aiarako Udalak administrazio batzarrei diru-laguntzak emateari buruzko ordenantzarekin.

SOLICITO :

Subvención para gastos de honorarios técnicos conforme a la ordenanza de concesión de ayudas del Ayuntamiento de Ayala a las juntas administrativas.

Lekua eta eguna:/Lugar y Fecha: Aiar/Ayala,
Ordezkararen sinadura,/ Firma del Representante,

(Erakundearen zigilua / Sello de la Entidad)
AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 - 01476 ARESPALDITZA (AIARA-ÁLAVA)
Teléfono. 945 39 90 13
Fax. 945 39 93 31
www.aiarakoudala.eus

II. ERANSKINA / ANEXO II
ADMINISTRAZIO BATZARRAK / JUNTAS ADMINISTRATIVAS
BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUK JASOTZEARI BURUZKO
ADIERAZPENA
DECLARACIÓN SOBRE PERCEPCIÓN DE OTRAS SUBVENCIONES

ADIERAZPEN-EGILEA:/ DECLARANTE:	
Izena eta abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI

ERREGIDORE – PRESIDENTE GISA
EN CALIDAD DE REGIDOR/A - PRESIDENTE/A DE

ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA	IKZ / NIF

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA:/ SUBVENCIÓN SOLICITADA:

NIRE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT:

DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD:

- Ez dudala ez eskatu ez jaso xede bererako erakunde pribatuen zein publikoen inolako diru-laguntzarik. / Que no se ha solicitado ni percibido subvención alguna de ninguna entidad pública y/o privada con la misma finalidad.
- Diru-laguntza eskatu zaiola honako erakunde publiko eta/edo pribatu honi, baina ez dela emakida ebatzi. /Que se ha solicitado subvención a la siguiente institución pública y/o privada, pero no se ha resuelto su concesión.

Erakundea edo entitatea: /Institución o entidad:	Emandako zenbatekoa: /Importe solicitado:

- Beste diru-laguntza publiko eta/edo pribatu batzuk eskatu eta eskuratu direla (adierazi erakundea eta zenbatekoa): / Que se han solicitado y obtenido otras subvenciones públicas y/o privadas (Indicar organismo y cuantía):

Erakundea edo entitatea: /Institución o entidad:	Emandako zenbatekoa: /Importe solicitado:

(Eskaeraren eta ebazpenaren fotokopiak aurkeztu behar dira) /
(Debe adjuntar copia de la solicitud y de la resolución)

Lekua eta eguna:/Lugar y Fecha: Aiara/Ayala,
Ordezkararen sinadura,/ Firma del Representante,

(Erakundearen zigilua / Sello de la Entidad)
AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 - 01476 ARESPALDITZA (AIARA-ÁLAVA)
Teléfono. 945 39 90 13
Fax. 945 39 93 31
www.aiarakoudala.eus

III. ERANSKINA / ANEXO III

ADMINISTRAZIO BATZARRAK / JUNTAS ADMINISTRATIVAS

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZA NAGUSIAN ETA FORU- OGASUNEAN DATUAK EGIAZTATZEKO BAIMENA EMATEA AUTORIZACION PARA COMPROBACIÓN DE DATOS ANTE LA TESORERIA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL Y LA HACIENDA FORAL

IDENTIFIKAZIO-DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS:

Izena eta abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI
--	------------------

ERREGIDORE – PRESIDENTE GISA

EN CALIDAD DE REGIDOR/A - PRESIDENTE/A DE

ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA

IKZ / NIF

BAIMENA EMATEN DIOT:

AIARAKO UDALARI informazioa eska diezaien Arabako Foru Aldundiko Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari administrazio batzar honen egoerari buruz, erakunde horietan ordainketak egunean dituela egiaztatzearren.

AUTORIZO:

AI AYUNTAMIENTO DE AYALA a que solicite a la Hacienda Foral de la Excm. Diputación Foral de Álava y a la Tesorería General de la Seguridad Social la información sobre la situación de esta junta administrativa, a fin de acreditar que se encuentra al corriente de sus pagos en dichos organismos.

Lekua eta eguna:/Lugar y Fecha: Aiara/Ayala,
Ordezkararen sinadura,/ Firma del Representante,

(Erakundearen zigilua / Sello de la Entidad)

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 - 01476 ARESPALDITZA (AIARA-ÁLAVA)
Teléfono. 945 39 90 13
Fax. 945 39 93 31
www.aiarakoudala.eus

IV. ERANSKINA /ANEXO IV

ADMINISTRAZIO BATZARRAK / JUNTAS ADMINISTRATIVAS

DIRU-LAGUNTZAREN ONURADUN IZATEKO DEBEKURIK EZ IZATEAREN ADIERAZPENA

DECLARACIÓN DE NO ESTAR INCURSO EN NINGUNA PROHIBICIÓN PARA SER
BENEFICIARIO/A DE SUBVENCIONES

ADIERAZPEN-EGILEA / DECLARANTE:	
Izena eta abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI

ERREGIDORE-PRESIDENTE GISA
EN CALIDAD DE REGIDOR/A - PRESIDENTE/A DE :

ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA	IKZ / NIF

NIRE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT:

Administrazio Batzar honek ez duela debekurik diru-laguntzen onuradun izateko, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorren (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 13. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD:

Que esta Junta Administrativa no está incurso en la prohibición para obtener la condición de beneficiaria de subvenciones, según lo señalado en el artículo 13, de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Lekua eta eguna:/Lugar y Fecha: Aiara/Ayala,
Ordezkiaren sinadura,/ Firma del Representante,

(Erakundearen zigilua / Sello de la Entidad)

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 - 01476 ARESPALDITZA (AIARA-ÁLAVA)
Teléfono. 945 39 90 13
Fax. 945 39 93 31
www.aiarakoudala.eus

V. ERANSKINA /ANEXO V

ADMINISTRAZIO BATZARRAK / JUNTAS ADMINISTRATIVAS OBREN EXEKUZIORAKO DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA JUSTIFICACIÓN DE SUBVENCIÓN PARA EJECUCIÓN DE OBRAS

ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA

IKZ / NIF

--	--

ADMINISTRAZIO BATZARRAKO FEDE-EMAILEA /
FIEL DE FECHOS DE LA JUNTA ADMINISTRATIVA

NAN/ DNI

--	--

ZEIN OBRATARAKO ESKATZEN DEN DIRU-LAGUNTZA: / OBRA PARA LA QUE SE SOLICITA SUBVENCIÓN:

--

HAU ZIURTATZEN DU: / CERTIFICA:

- **Administrazio Batzar honek obra egin eta adostasunez jaso duela aurtengo abenduaren 31 baino lehen.** / Que esta Junta Administrativa ha ejecutado y recepcionado de conformidad la obra con fecha anterior al 31 de diciembre del año en curso.
- **Obraren exekuzioaren zenbatekoa guztira** **€-koa izan dela.**
Que el importe total de la ejecución de la obra ha ascendido a euros.
- **Obraren zenbateko horrekin honako kontratazio-prozedura honi jarraitu zaiola (adierazi X batez):** / Que por el importe de la obra se ha seguido el siguiente procedimiento de contratación (marcar con una X la que proceda):
 - Kontratu txikia** / Contrato menor.
 - Kontratu negoziatua** / Contrato negociado.
 - Kontratu irekia** / Contrato abierto.

(Kontratu negoziatua edo irekia izatekotan fede-emailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinetan zein kontratazio-prozedurari jarraitu zaion zehaztuko den). / En caso de contrato negociado ó contrato abierto se deberá presentar Certificado del Fiel de Fechos en el que se especifique el procedimiento seguido para la contratación).
- **Diruz lagundutako obra honetarako diru-laguntza eta/edo laguntza hauek eskatu direla (bete, baldin eta eskariarekin batera bete ez bada edo datuak aldatu badira):** /Que para la presente obra subvencionada se han solicitado además las siguientes subvenciones y/o ayudas (rellenar en caso de que no se haya rellenado con la solicitud o si los datos han experimentado variación):

Diru-laguntza eman duen erakundea: / Organismo que ha concedido la ayuda:	Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa: / Cuantía de la subvención recibida:

Lekua eta eguna:/Lugar y Fecha: Aiara/Ayala,

O.E. Erregidorea,
Vº Bº El /La Regidor/a,

Fede emailea,
El /La Fiel de Fechos,

(Erakundearen zigilua / Sello de la Entidad)
AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA

HONAKO DOKUMENTU HAUEK ATXIKI DIRA (adierazi X batez):

SE ADJUNTA LA SIGUIENTE DOCUMENTACIÓN (señalar con una X lo que se adjunta):

- Beste diru-laguntza batzuk eman dituzten erakunde edo entitateen ebazpenak, zeinetan emandako zenbatekoa adieraziko den.**
Resoluciones de otros organismos o entidades que hayan concedido otras ayudas que indiquen el importe de la cuantía otorgada.
- Diruz lagundutako obraren gastuen jatorrizko fakturak edo kopia egiaztatuak.**
Facturas originales o copias compulsadas del gasto correspondiente a la obra subvencionada.
- Aurkeztutako fakturak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.**
Justificante de pago de las facturas aportadas.
- Hala badagokio, fede-emailearen ziurtagiria, zeinetan zein kontratazio-prozedurari jarraitu zaion zehaztuko den.**
En su caso, Certificado del Fiel de Fechos en el que se especifique el procedimiento seguido para la contratación de la obra.
- Hala badagokio, Foru Ogasunari PFEZren atxikipena ordaindu zaiola egiaztatzen duen agiria, baldin eta faktura profesional batek egin badu.**
En su caso, justificante de haber abonado a la Hacienda Foral la retención correspondiente al IRPF, cuando la factura es emitida por un/una profesional.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Bº La Iglesia, nº 3 - 01476 ARESPALDITZA (AIARA-ÁLAVA)
Teléfono. 945 39 90 13
Fax. 945 39 93 31
www.aiarakoudala.eus

V. ERANSKINA / ANEXO V
ADMINISTRAZIO BATZARRAK / JUNTAS ADMINISTRATIVAS

ZERBITZU-SARI TEKNIKOEN GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA
JUSTIFICACIÓN DE SUBVENCIÓN PARA GASTOS DE HONORARIOS TÉCNICOS

(ESKATUTAKO ZERBITZU-SARI TEKNIKOEN GASTU BAKOITZEKO ERANSKINA BAT AURKEZTU BEHARKO DA)
(SE DEBERÁ PRESENTAR UN ANEXO POR CADA GASTO DE HONORARIO TÉCNICO SOLICITADO)

ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA

IKZ / NIF

ADMINISTRAZIO BATZARRAKO FEDE-EMAILEA /
FIEL DE FECHOS DE LA JUNTA ADMINISTRATIVA

NAN/ DNI

ZEIN ZERBITZUTARAKO ESKATZEN DEN DIRU-LAGUNTZA:(Proiektuaren idazketa, obra-zuzendaritza, txostena...): /
SERVICIO PARA EL QUE SE SOLICITA SUBVENCIÓN:(Redacción Proyecto, Dirección de obra, Elaboración de Memoria...):

HAU ZIURTATZEN DU: / CERTIFICA:

- **Administrazio Batzar honek esleitu duela aurtengo abenduaren 31 baino lehen gauzatu den zerbitzua.** / Que esta Junta Administrativa ha ejecutado el servicio que ha sido ejecutado con fecha anterior al 31 de diciembre del año en curso.

- **Zerbitzuaren zenbatekoa guztira** Que el importe total del servicio ha ascendido

€-koa izan dela.
euros.

- **Zerbitzuaren zenbateko horrekin honako kontratazio-prozedura honi jarraitu zaiola (adierazi X batez):** / Que por el importe del servicio, se ha seguido el siguiente procedimiento de contratación (marcar con una X):

- Kontratu txikia / Contrato menor.**
 Kontratu negoziatua / Contrato negociado.
 Kontratu irekia / Contrato abierto.

(Kontratu negoziatua edo irekia izatekotan fede-emailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinetan zein kontratazio-prozedurari jarraitu zaion zehaztuko den). / En caso de contrato negociado ó abierto se deberá presentar Certificado del Fiel de Fechos que especifique el procedimiento seguido para la contratación).

- **Diruz lagundutako zerbitzu-sari tekniko honetarako diru-laguntza eta/edo laguntza hauek eskatu direla (bete, baldin eta eskariarekin batera bete ez bada edo datuak aldatu badira):** /Que para el gasto de honorarios técnicos subvencionados se han solicitado además las siguientes subvenciones y/o ayudas (rellenar en caso de que no se haya rellenado con la solicitud o si los datos han experimentado variación):

Diru-laguntza eman duen erakundea: / Organismo que ha concedido la ayuda:	Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa: / Cuantía de la subvención recibida:
<input type="text"/>	<input type="text"/>

Lekua eta eguna:/Lugar y Fecha: Aiara/Ayala,

O.E. Erregidorea,
Vº Bº El /La Regidor/a,

Fede emailea,
El /La Fiel de Fechos,

(Erakundearen zigilua / Sello de la Entidad)

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA

HONAKO DOKUMENTU HAUEK ATXIKI DIRA (adierazi X batez):

SE ADJUNTA LA SIGUIENTE DOCUMENTACIÓN (señalar con una X lo que se adjunta):

- Beste diru-laguntza batzuk eman dituzten erakunde edo entitateen ebazpenak, zeinetan emandako zenbatekoa adieraziko den.**
Resoluciones de otros organismos o entidades que hayan concedido otras ayudas que indiquen el importe de la cuantía otorgada.
- Diruz lagundutako zerbitzu-sari teknikoek gastuen jatorrizko fakturak edo kopia egiaztatuak.**
Facturas originales o copias compulsadas del gasto correspondiente al gasto de honorarios técnicos subvencionado.
- Aurkeztutako fakturak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.**
Justificante de pago de las facturas aportadas.
- Hala badagokio, fede-emailearen ziurtagiria, zeinetan zein kontratazio-prozedurari jarraitu zaion zehaztuko den.**
En su caso, Certificado del Fiel de Fechos en el que se especifique el procedimiento seguido para la contratación de la obra.
- Hala badagokio, Foru Ogasunari PFEZren atxikipena ordaindu zaiola egiaztatzen duen agiria, baldin eta faktura profesional batek egin badu.**
En su caso, justificante de haber abonado a la Hacienda Foral la retención correspondiente al IRPF, cuando la factura es emitida por un/una profesional.